

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

ENTZUMEN PROBA

1. ABIZENA	NAN zk.
2. ABIZENA	AZTERKETA EGUNA
IZENA	AZTERKETA TOKIA

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
ENTZUMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. Hiru entzungai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. Entzungaien iraupena guztira: 15 min gehienez. 	40-45 min	20	10

■ **Irakur itzazu** ariketa bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.

1. ariketa: aukeratu erantzuna

Ondoren, bi aldiz entzungo duzu Miren Cajaravillek kutsatzaileez esandakoa.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

Nola markatu erantzun zuzena?

- a)
 b)
 c)

Eta oker markatu baduzu?

- a)
 b)
 c)

1. Zer dio Miren Cajaravillek kutsatzaileez?

- a) Arrain bakoitzaren barrenak gorabehera, ondorio bat edo beste eragingo dutela.
b) Hartzailerik berezienei ez dietela horrenbeste eragiten.
c) Arrainen sexu-eraldaketan eragina duten elementuak direla.

2. Zer esaten du organismo motei buruz?

- a) Ikertu dituzten arrinetan ugalketa-organo bat baino gehiago dituztenak daudela.
b) Oro har, aztertutako espeziean, sexu desberdinetako arrainak daudela.
c) Azterketak azterketa, ziurtasunez ez dagoela jakiterik sexu mota.

3. Zer ondorio dauka ikertu duten fenomenoak?

- a) Gonadak ebakitzen direnean, obozitoak agertzen direla.
b) Estrogenoen gorakadak obozitoak sorrarazten dituela.
c) Arrek berez duten obozito kopuruak gora egiten duela.

4. Zer gehiago antzeman dute ikerketa egitean?

- a) Sexu-eraldaketaren aurretik beste maila bateko aldaketak izaten direla.
b) Aldaketa molekularrak detektatu dituztela euskal kostaldeko hainbat txokotan.
c) Proteina- eta gene-mailan izandako aldaketek euskal kostaldea erasoko dutela.

5. Fenomenoak badu ondoriorik arrainen arteko ugalketan?

- a) Aztertutakotik ez dute konklusiorik atera nahi izan oraindik.
b) Bertako eta kanpoko laginak erkatuta, hemen beherakada nabarmena dago.
c) Ingalaterran emaitzak argiak diren arren, gurean ez dakite.

6. Zein arrain aztertu dute?

- a) Zentinela izenekoa.
b) Gipuzkoako uretakoa den lazuna.
c) *Krokoi* izenaz ere ezaguna dena.

7. Zerk arduratu beharko luke kontsumitzailea?

- a) Gure biziraupenari begira, arrain-espezie horrek gugan izan dezakeen eragina.
b) Batez ere ekosistemaren biziraupenak.
c) Euskal Herrian aztertutako arrainari estimu handia eduki ez izanak.

2. ariketa: aukeratu erantzuna

Ondoren, bi aldiz entzungo duzu Santi Leonéren iritzia.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

8. Zer kontatzen du Santi Leonék?

- Haurra zelarik izan zituen ametsek ospea zutela helburu.
- Ez duela erdietsi umetako desioak betetzea.
- Txikia zenean, idazten zekiten ingeles jakintsuak zituela gustuko.

9. Zer dio porrotaz?

- Ez dela erabatekoa izan, ingelesez moldatzen baita.
- Partziala izan dela, ez duelako lortu umetako istorioak gogoan gordetzea.
- Bete-betea izan dela, batez ere idazketari dagokionez.

10. Zertaz ohartu da Santi?

- Musika-talde batean perkusio-tresnaren bat jotzeko duen gogoaz.
- Hain gustukoa zuen tresnak ez zuela etorkizun argirik.
- Oraintsu arte ez dela konturatu zein den bere gustuko bokazioa.

11. Zer esaten du triangeluaren gainean?

- Musika-tresna txikia denez, edonon eta edonoiz jo daitekeela.
- Aukera ematen duela beste zeregin batekin uztartuz erabiltzeko.
- Gainerako musika-tresnak ez bezala, kolpe soil batez nabarmentzen dela.

12. Zertarako aukera izango luke triangelu-jotzaileak?

- Besteek egindako lana aztertzeko.
- Taldeko kideekin hainbat jarduera egiteko.
- Taldekiek egiten dituzten akatsak leporatzeko.

13. Zer fenomeno gertatzen da literaturan?

- Kritika literarioak egiten dituenari idazleak besteko ospea izan nahi izatea aurpegiratzen zaio.
- Inbidiaren inbidiaz irakurlearen oniritzi bila dabilta asko eta asko.
- Inbidia jotzaileak beste onespenean lortze aldera, behea jotzen dute.

14. Zeri kentzen dio garrantzia?

- Inbidiarik ezari.
- Publikorik ezari.
- Osperik ezari.

15. Zein da bere asmoa etorkizunean?

- Egunez egun burutik pasatzen zaiona liburu batean batzea.
- Txikitako ametsari buruzko liburua argitaratzea.
- Berak abestean ingurukoek egiten dituzten komentarioekin liburutxoa egitea.

16. Zer uste dute kritika txarra jaso duten idazle eta artistek?

- Arrakasta handia, baina kritikatzeko ahalmen gutxi izaten duela pertsona frustratuak.
- Kritikaria bere lanean etsipena sentitu duen pertsona izan ohi dela.
- Kritikari bihurtzeko, ezinbestekoa dela ezaugarri bereziak izatea.

17. Zertarako erabiltzen du Leonék Bilboko zubiaren adibidea?

- Kaletar baten eta kritikari profesional baten arteko aldea erakusteko.
- Pertsonak egunero egiten duten zerbait gaitzesteko.
- Bilbotarrek Calatravari zioten inbidia agerian uzteko.

18. Nori dio Leonék inbidia?

- Bere buruarenganako konfiantza erakusten duten kritikariei.
- Kritikariei inbidia hutsa leporatzen dieten idazleei.
- Arrakastaren zergatia autoestimua dela diotenei.

3. ariketa: aukeratu erantzuna

Ondoren, bi aldiz entzungo duzu *Wimi5*ari buruzko elkarrizketa.

- Entzuten hasi aurretik 2 min dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean hasi erantzuten.

Nola markatu erantzun zuzena?

- a)
- b)
- c)

Eta oker markatu baduzu?

- a)
- b)
- c)

19. Zer da *Wimi5*?

- a) Teknaliak sortu duen sareko plataforma.
- b) *Cloudean* edo Interneten dagoen bideo-jokoaren diseinatzailea.
- c) Linean dagoen erreminta da eta bideo-jokoak erostera bultzatzen du.

20. Zein da baliabide honen helburua?

- a) Bideo-jokoak egin, plazaratu eta saltzea.
- b) Bideo-jokoaren ekoizlearentzako sormen-iturri izatea.
- c) Bideo-jokoak diseinatzeko plataforma erabilgarria eta erraza eratzea.

21. Zer bereizgarri du *Wimi5*ek beste bideo-joko batzuen aldean?

- a) *Cloudean* egon arren, ordenagailuak programa jakin bat behar izatea.
- b) Produktu hau *html5*-ean egin izanak ez duela ziurtatzen edozein gailutan erabili ahal izatea.
- c) Garatzaileak, aisialdiaz gozatzen dagoela ere, internet duen edozein dispositibotan lan egin dezakeela.

22. Zer da beharrezkoa *Wimi5*en sartzeko?

- a) Linean egotea.
- b) Bertako produktuekin interaktuatzea.
- c) Informatikan aditua izatea.

23. Zertan datza *Wimi5* sortzearen funtsa?

- a) Edozein erabiltzailek etekinak atera ahal izatean.
- b) Irabaziak sortzaileen eta *Wimi5* enpresaren artean banatzean.
- c) Bideo-joko erraz eta erabilgarrien beharrezan.

24. Zein eratako jokoak garatu litezke bertan?

- a) Partaideren batek zuzendutako jokoak.
- b) Jarraibiderik behar ez duten jokoak.
- c) Batez ere taldean erabiltzeko joko didaktikoak.

25. Zailtasunen artean zein azpimarratzen du gonbidatuak?

- a) Teknologia berria denez, nahitaezkoa dela frogak egitea plataforma handi hori mantentzeko.
- b) Teknologia egunean-egunean aldatzea dela erronka eta horrek aldaketa handiak dakartzala.
- c) Egunean egon nahi badute, txitean-pitean erabakiak hartu beharko dituztela aldaketak egiteko.

ERANTZUN ORRIA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ Entzungaia: **ARRAIN ARRAK EME BIHURTU**

1.	C	2.	B	3.	B
4.	A	5.	C	6.	C
7.	B				

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ Entzungaia: **TRIANGELU JOTZAILEA**

8.	B	9.	A	10.	C
11.	B	12.	A	13.	A
14.	C	15.	C	16.	B
17.	A	18.	B		

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ Entzungaia: **WIMI5**

19.	A	20.	A	21.	C
22.	A	23.	B	24.	B
25.	C				